

7


Ibilbide motza

PR-A 56









BERNEDO -
VILLAFRIA -
VILLAVERDE -
NAVARRETE


Seinaleztapena

-  Ibilbidearen jarraipena
-  Norabide aldaketa
-  Norabide okerra



LEGENDA

 Irteera	 Interes lekua
 Helmuga	 Kirolgunea
 Eraikin erlijiosoa	 Errota
	 Aukerako bideak





ARABAKO MENDIALDEKO ibilbide motzen sarea

FITXA TEKNIKOA

	Distantzia	14,9 km
	Denbora	4h 45'
	Zailtasuna	Handia
	Ibilbide mota	Zirkularra

Ibilbide ederra da, Arabako Mendietako hainbat erdigune Errioxakoekin lotzen zituzten antzinako bideetan zehar doana, landare ikatza, ardoa, garia edo olio bezalako produktu salerosketarako erabiltzen zirenak. Ezpelak, ameztiak eta erkameztiak dituzten pagadi berriak zeharkatzen ditu. Ega haranaren eta Toloño mendilerroaren bista panoramikoak apartak dira, eta "bonete" ezaguna duen San Tirso mendira igo daiteke. PR-A 54 ibilbidearekin bat egiten du neurri batean, baita GR1 "Zidor Historikoa" ibilbidearekin ere. Beste interpretazio zidor interesgarri bat ere badago ikaztegi eta karobie buruz.



www.arabakomendialdea.eu

Arabako Mendialdeko
Kuadrilla
Gasteiz - Lizarra errepidea, 7
01110 Santa Cruz de Campezo
(ARABA)

945405424

arabakomendialdea@arabakomendialdea.eu

Eskualdeko turismo bulegoa
Aintzinako Vasco-Navarro Trenaren
ibilbide berdearen Interpretazio Zentroa
01128 Antoñana
(ARABA)

945410577



BERNEDO. Ibilbidea lehen tartean PR-A 56k estaliko du, eta mendebalderantz egingo du, Santa Teresa baseliza gaindituz, eta Sarrea kalea hartuko du; horren muturrean, Sarreako arkua dago. Horren atzean, izen bereko iturria dago, **1** bertatik, ezkerretara, hormigoizko bideari ekingo diogu.

Okongo baselizarako errepidearekin elkartzean **2** ezkerretara joko dugu 340 metro eginez bihurguneraino. Hemen "Karobien eta ikaztegiaren Ibilbidea" desbideratzen da ezkerretara, baina gureak eskuinera jotzen du bide zahar batetik **3**. Bidearen gune zehatz batean dauden Okongo Ama Birjinaren santutxoak adierazten du, errepidea egon aurretik, hori zela baselizara joateko jatorrizko ibilbidea.

Azkenik, Okongo Andre Mariaren baselizara helduko gara **4** baseliza bera bista xarmagarriak dituen bertako parke eder batean dago. Hor laborantzako tresnen aire zabaleko erakusketa baten ezkerretik hasten den bidea hartuko dugu, San Tirsorako igoera eta "Karobien eta ikaztegiaren ibilbidea" adierazten duen geziari jarraituta.

Intxaurren sarea duen aldapan behera egin ondoren, berehala hartuko dugu bide zaharren bidegurutzeta **5**, basoaren azpian. Gune horretan PR-A 54 ibilbidea ezkerretara banatu egiten da Zuraren bidea jarraitzeko. Gure ibilbideak gune horretan bi aukera ditu: lehenengoa, interes handikoa, kiribil bat egin eta Karobien eta ikaztegiaren ibilbidea egitean datza; seinalatuta dagoen aurkako nora-bidean, eta ibilbidea 2 km luzatzen da. Bigarrenak, ibilbide nagusia eta laburrena dena, eskuinetara jotzen du, GR-1 ere jarraituz, eta antzinako komunikazio-bidearen ibilbide ederretik gora egiten duen bide zabala hartzen du; komunikazio-bide horrek Bernedo Kripan eta Errioxarekin lotzen zuen, produktuak trukatzeko.

Saihesbidea eskuinetik gure bidearekin lotzen da **6**. Ezkerretara Mendate Berrira doan zidorra hasten da. Aurrera jarraitu behar da, igoera guztian zehar ezpelaren usain biziak inguru blaitzen duen bitartean.

Ibilbidea antzinako ikaztegi bat dagoen lekuan dagoen seinalatutako bidegurutzera heltzen da **7**. Bide zaharrak haitzuloetako baseliza duen San Tirsorako igoera, Palo mendatera eta Kripan mendatera jarraitzen du. Gure ibilbideak eskuinera jotzen du, GR-1 ibilbidearekin batera jarraituz, eta Villafriara doan antzinako bidearen ibilbide atseginetik leunki jaisten da. Ondoren harrobi zahar bat gurutzatzen da, ibilbidea basoaren azpitik jarraituz, orain pista zabalgotik. Aurrerago ondo seinalatutako beste bidegurutze batera **8** heltzen da eta bertan Villafriara eta Navarreteara doan SAIHESBIDETIK bidea mozteko aukera dago (2,5 km).

Ibilbide nagusiak gune horretan ezkerrean jarraitzen du GR-1 ibilbidearen ondoan. 70 m-ra eskuinetara bidegurutze bat uzten da igotzen. Toro mendatetik pasatuz Villafriatik Laguardiara doan antzinako bidearen ibilbidetik, gaur egun pista dena. Bidegurutze batera heldu baino lehenago **9** bertan Bergonda Dehesara doan pista uzten da ezkerrean bigarren mailakoagoa den beste bat hartzeko. 150 metro aurrerago Bergondatik datorren zidor bat bidearekin lotzen da eta igoerarekin jarraitu behar da. Igarobidea estutu eta bide zaharren ibilbidea jarraituz eta pagadia desagertzen den gune altu batera heltzen da.

Ondoren Bergondako Dehesara igotzen den pistarekin lotzen da berriro **10** eta bertatik jarraitzen du ezkerretara. Igoera leundu egiten da eta 120 m-ra eskuinetara jaisten den bide bat uzten da. Kilometro erdi pasa ondoren Toro mendaterantz doan GR-1 ibilbidea utzi eta eskuinetara zakarki jaisten dena hartu behar da **11**. Ibiltariak Ega haranaren bista panoramikoak ikusiko du; horiek Toloño mendilerroko gune maldatsu eta ederrak direla esaten da.

Ibilbidea Villaverdetik Toro mendaterantz igotzen den pistarekin lotzen denean **12** eskuinera jo behar da erkametzen artetik jaisten jarraitzeko. Uretzatzeko urmael bat pasatu eta ezkerrean pista bat utzi behar da ur-bilgeti baten ondoan dagoen zelaigune batera iritsiz. Hortik aurrera zuzen jarraitu behar da hurbileko herrirantz asfaltaturiko bide batetik, eskuinetik lotzen den lehenengo pista saihestuz.

Villaverde herria baino aurrerago 300 m-tan gutxi gorabehera asfaltatutako pista utzi behar da eskuinetara gure pista zeharkatzen duen lursaila hartzeko **13** eta laboreen artetik aurrera egin behar da Bonetedun San Tirso mendia eta Peña Alta mendien gailur malkartsua aurrera direla. Ondoren norabide hori utzi behar da eta ezkerreko lehenengo pista hartu **14** pista hori zuzenean Bernedo-Urizaharra errepidera jaisten da, **15** eta bertatik eskuinetara jarraitu behar da. 200 m-ren ondoren errepidea utzi eta ezkerretara lursail bat hartu behar da **16** eta horren ondoren Ega ibaia zeharkatu behar da, udan lehor egoten dena.

Bidea ezkerretara biratzen denean eskuineko pistatik joan behar da haraneko norabidea jarraituz **17**. Muino txiki batetik San Pedro baseliza ikusten da intxaurren sartzeko itzalean; harantz abiatuko gara ezkerretara hasten den lehenengo pistatik **18** ibilbidetik zertxobait desbideratuz. San Pedro baselizatik **19** haranaren eta Toloño mendilerroaren bista panoramiko ederra ikusten da. Bisitarekin ondoren, berriz jarraitu behar da lursailetik Navarreteko norabidean, jadanik hurbil ikusten dena. San Pedro erreka zeharkatu eta ondoren ezkerretara pista bat utzi behar da. Hurrengo bidegurutzetik ezkerretara jarraitu behar da **20**. Aurrerago bidegurutze bat dago **21** eta bertan berriz ere ezkerreko pistatik jo behar da, basotik doana.

Tarte luze baten ondoren ezkerretara biratzen den pista utzi behar da, eskuinean dagoen bide belartsu bat hartzeko **22** bi lursailen artetik pasatzen dena. Metro gutxira erreka bat zeharkatu behar da, oro har lehor egoten dena; jarraian eskuineko bidea hartu behar da, La Dehesa mugatik zehar eramaten gaituena, Ibilbide horretan zehar Navarreteko auzotarrek egiten duten baten arobera egiaztatzen da, batez ere aurrerako, "egur loteak" izenez ezagutzen dena.

Basotik zehar egindako ibaldia Navarreten uzten gaitu eta bertan plaza nagusiraino sartuko gara, **23** San Juan eliza bikainen ondo. Hortik berriz heldu garen norabide berean itzuliko gara (N) eta metro gutxira eskuinetara Semillero kalea hartuko dugu herria uzteko. Tokiko errepidea zeharkatu ondoren aurreroko pistatik jarraituko dugu, hilerrira gaindituz eta ondoren bi labore-lursailen artetik igaroz; hemen gure ibilbidea BTT ibilbide bati gainjarriko zaio.

Ondoren Trebiñu-Bernedo errepidea zeharkatu behar da **24** aurreko lursailetik jarraitzeko; lursail hori finka batzuen ertzetik pasatzen da eta ondoren erkameztian sartzen da. Erreka baten ibilgura gainditu ondoren, nahiko kolpatutako gezi bat agertzen da harrizko gurutze baten bidea adieraziz. Bidea baso-pista batekin lotzen da **25** eta pista horretatik eskuinera jarraitu behar da jaisten hasteko. Basotik irtetean lursail batekin elkartzen da **26** eta bertatik eskuinetara jaisten jarraitu behar da Bernedoko norabidean. Ezkerrean eta eskuinean batzen diren adarrak saihestu behar dira, abeltzaintzako ustategi handi baten ondortik pasatu eta Ega ibaia zeharkatu behar da. Bernedora heltzen Cárcavas kaletik igo behar da berriz ere Plaza Nagusian amaitu arte **27**.



ARABAKO MENDIALDEKO
KUADRILLA
CUADRILLA DE
MONTAÑA ALAVESA



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava